

MATEO TXISTU

Tolosa aldean gertatu zen ziur aski. Aspaldi, apaiz bat bizi omen zen parrokia bat bere kontu zuela. Eguna joan, eguna etorri, ez zuen zeregin handirik izaten bere elizan; hortaz, nahiko astia izaten zuen gogoko zaletasunerako: ehizarako, alegia. Auzotarrek "Mateo Txistu" deitzen zioten, haren txakurrak harrapakin baten bila atera zitezen egiten zien txistuak zirela eta. Herritarrek irribarre eta txutxu-mutxu artean aipatzen zuten apaizaren zaletasun hori.

Galderak erantzun:

1. Zein herri aipatzen da? _____
2. Non lan egiten zuen apaizak? _____
3. Zein zen apaizaren gogokoen zuen zaletasuna? _____
4. Nola deitzen zioten herritarrek apaizari? _____

Halako egun batean, giza-arimaren ahuleziaren bila ibiltzen den deabrua azaldu zitzaion Mateo Txisturi, zaldun adeitsu baten itxuran. Baina apaiza, berehala jabetu zen benetako nortasunaz.

—Zer nahi duzu, gaizkile? —galdetu zion bat-batean, eta deabruak harriturik erantzun:

—Nik?, ezer ere ez!

—Orduan, zergatik zaude hemen?

Galderak erantzun:

1. Egun batean, nor azaldu zitzaion Mateo Txisturi? _____
2. Deabruak, zeinen itxura zeukan? _____
3. Apaiza konturatu zen nor zen zaldun adeitsua? _____



Apaizak txistu egin zien txakurrei, eskopeta hartu eta basoan barrena deabruaren begi bistatik desagertu zen. Deabrua barregarri geratu izanaren ustean, mendekua nola hartu pentsatzen eman zituen egun batzuk, eta azkenean aurkitu zuen mendekurako era egokia.

Galderak erantzun:

1. Deabruaren begi bistatik desagertu zenean apaiza, zer hartu zuen?

2. Zer pentsatu zuen deabruak Mateo txistu basoan barrenean desagertu zenean?

3. Zer esan nahi du "mendekua hartu"?

Igande batean, Mateo Txistu meza erdian zegoenean, erbi zuri batek muturra sartu zuen sakristiako atetik. Apaizaren zakurrak sakristian zeuden, eta erbia ikusi zuten bezain laster belarriak altxa eta zaunka bizian hasi ziren. Apaizak meza eten, eta begirada bat bota zuen sakristiarantz, iskanbilaren arrazoia jakin nahian. Ezusteko galanta hartu zuen, atean erbia ikusi zuenean, tente, bere bila joateko deika ari bailitzan.

Galderak erantzun:

1. Asteko zein egunetan ematen du meza Mateo Txistuk?

2. Zerk sartu zuen muturra sakristiako atetik?

3. Zer egin zuten apaizaren txakurrek erbia ikusi zutenean?

Apaizak ez zuen luzaroan pentsatu. Meza bertan behera utzi, eliztarrak txundituta ahozabalik, eskopeta eta txakurrak hartu, eta erbiaren atzetik abiatu zen.

Galdera erantzun:

1. Zer egin zuen apaizak?

Geroztik ez zen haren berririk izan. Ez zen inoiz itzuli. Hala ere, harez gero ugari dira bere txakurrei txistuka. sumatu dutenak, besteek zaunka tristeak entzun izan dituzte eta zenbait gau garbitan apaiza, txakurrak eta erbiaren irudiak antzeman daitezke ilargiaren argitara, beren amaierarik gabeko joan-etorrian.

Amaroa.com

Galderak erantzun:

1. *Zer gertatu zen gerora?*

2. *Entzunda zeneukan elezahar hau?*

